JELP
Jardun elebiduneko liburuxka praktikoa

EITBren laneko hizkuntza-irizpideak

2022.02

www.eitb.eus

JELP
Jardun elebiduneko liburuxka praktikoa

EITBren laneko hizkuntza-irizpideak

Jardun elebiduneko liburuxka praktikoa (JELP)
EITBren laneko hizkuntza-irizpideak

Egilea: Euskal Irrati Telebista

© EITB, 2022
Helbidea: EITB- Basurtuko Kaputxinoak 2 - 48013 Bilbo (Bizkaia)
Tel.: 00-34-946 563 000
Emaila: info@eitb.eus

Aurkibidea

00	Aurkezpena	07. or.
01	Jarraibide orokorrak	11. or.
02	Idazkera laua erabiltzeko gomendioak	17. or.
03	Batzarrak euskaraz egiteko gida	29. or.
04	Hizkuntza-baliabideak	33. or.
05	Aktak: ereduak eta esamoldeak	37. or.
06	Email eta gutunetako esamoldeak	43. or.
07	EITBko terminologia	49. or.
08	EITBko organigrama nagusia	57. or.
09	EITBren barruko prozedurak arloz arlo	61. or.

00 | Aurkezpena

00 | Aurkezpena

Euskal Irrati Telebistan, euskara modu naturalean izan da lan- eta zerbitzu-hizkuntza sorreratik bertatik, eta, denborarekin, jokabide horri eusteko jarraibideak eta irizpideak landu dira. Jarraibide eta irizpideok EITBren hizkuntza-politika osatzen dute, eta bi dokumentutan jasota daude: *Jardun elebiduneko liburuxka praktikoa* (JELP) eta *EITBrako hizkuntza funtsak*.

JELPen lehen bertsioa 2016an prestatu zen, bai EITBko lan-jardueretan bai bezero eta hornitzaileekiko harremanetan aintzat hartu beharreko hizkuntza-jarraibideak bilduz. Aldi berean, JELP laguntza-tresna bat ere bada, esamoldeak, txantiloiak, ereduak eta bestelako baliabideak eskaintzen baititu euskaraz lan egitea errazteko, inoiz ere ahaztu barik EITBk testu asko gaztelaniaz ere ekoitzi behar dituela.

Bertsio berri honetan, baliabide gehiago eskaintzeaz gainera, Eusko Jaurlaritzak *EAEko administrazio orokorraren eta hari atxikitako sektore publikoaren hizkuntza-irizpideak* (2021) eskuliburuan ematen dituen jarraibideekin bat etortzea egiaztatu da.

EITBrako hizkuntza funtsak dokumentuan, berriz, komunikazio-taldearen produktu-eskaintza gidatzen duten hizkuntza-irizpideak jasotzen dira. Izan ere, beste enpresa eta erakunde batzuetan ez bezala, EITBren produktuek hizkuntza inplikatzen dute.

Bi dokumentu horietako irizpideetan aurrerapausoak egiten joateko eta, horrekin batera, EITBko lankideen arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko, EITBk euskara-plana dauka 2013tik.

Bilbo, 2022ko otsaila

01 | Jarraibide orokorrak

01 | Jarraibide orokorrak

1. **Kanporako zein barrurako dokumentuak** euskaraz egingo dira, edo euskaraz eta gaztelaniaz. Egilearen ardura izango da beharrezko bertsioak prestatzen direla ziurtatzea. Hizkuntza bakoitzeko bertsioa dokumentu independentea izango da baina, argitaratzeko, liburu(xka) berean atonduta jar daitezke bertsio biak, bata alde batetik hasita, eta bestea, beste aldetik (behekoz gorako azalak eta testuak).

2. **Jardueren memoriak** euskaraz egingo dira, edo euskaraz eta gaztelaniaz. Egilearen ardura izango da beharrezko bertsioak prestatzen direla ziurtatzea. Hizkuntza bakoitzeko bertsioa dokumentu independentea izango da baina, argitaratzeko, liburu(xka) berean atonduta jar daitezke bertsio biak, bata alde batetik hasita, eta bestea, beste aldetik (behekoz gorako azalak eta testuak).

3. **Aktak** euskaraz egingo dira, edo euskaraz eta gaztelaniaz. Egilearen ardura izango da beharrezko bertsioak prestatzen direla ziurtatzea.

4. **Kontratuak eta akordioak** euskaraz prestatuko dira EITBrekin euskaraz komunikatzen diren erakundeen kasuan. Osterantzean, euskaraz eta gaztelaniaz. Kontratu eta akordio elebidunetan, testu paralelo modura aurkeztuko dira bertsio biak orrialde berean, euskarazko bertsioa ezkerreko zutabean ezarririk.

5. **Gutunak eta emailak** euskaraz prestatuko dira EITBrekin euskaraz komunikatzen diren erakundeei zuzentzeko. Osterantzean, euskaraz eta gaztelaniaz. Gutun elebidunetan, testu paralelo modura aurkeztuko dira bertsio biak orrialde berean, euskarazko bertsioa ezkerreko zutabean ezarririk. Email elebidunetan, euskarazko bertsioa ipiniko da lehenengo, eta esteka bat eskainiko da mezuaren hasieran gaztelaniazko bertsiora jauzteko, ohar honekin: «castellano».

6. **Kontsultak, iruzkinak eta kexak** euskaraz prestatuko dira EITBrekin euskaraz komunikatzen diren ikusle, entzule eta erabiltzaileei erantzuteko. Osterantzean, euskaraz eta gaztelaniaz.

7. **Sinadura formala zein automatikoa** ezartzen denean, sinatzailearen saila eta kargua euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz ipin daitezke. Bietara ipintzea aukeratzen bada, euskarazkoa joango da lehenengo, eta gaztelaniazkoa ondoren, barra makur batez banatuta edo azpiko lerroan.

8. **Seinaletika** euskaraz dago EITBren egoitza guztietan. Bestaldetik, behin-behineko kartel, ohar, jakinarazpen eta bestelako idazkunak euskaraz jarri behar dira, edo euskaraz eta gaztelaniaz, Egoitza Sailaren, Zuzendaritza Artistikoaren eta Euskara Zerbitzuaren onespenarekin.

9. **Aplikazio informatikoak** EITBrentzat berariaz garatzen direnean, interfazea euskaraz prestatuko da, edo euskaraz eta gaztelaniaz. Hornitzaileei erosten zaizkienen kasuan, langileei beti eskainiko zaie euren ordenagailuan euskarazko bertsioa instalatzeko aukera, eskuragarri egonez gero.

10. **Appak** euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira, erabiltzaileak berak hauta dezan nahi duen hizkuntza. Haurrentzat eta gazteentzat prestatzen diren appak euskaraz baino ez dira eskainiko.

11. **Eskuliburuak,** EITBren barruan prestatzen direnean, euskaraz jarriko dira, edo euskaraz eta gaztelaniaz. Hornitzaileei erosten zaizkien produktuen eskuliburuen kasuan, euskarazko bertsio bat prestatzeko ahalegina egingo da, eskematikoa izanda ere.

12. **Batzarrak** eta gainerako lan-jarduerak —hala nola, kudeaketako zereginak, harreman profesionalak eta talde-lanak— euskaraz izatea bultzatuko da. Euskal Irrati Telebistan euskaraz lan egin ahal izateko helburua ez da betetzen prozesua gaztelania huts-hutsean eraman ondoren azken emaitza euskaratzearekin konformatuz gero.

13. **Telefonoz,** EITBra jotzen duten herritarrei euskaraz egingo zaie lehen hitza, «EITB, bai esan» esanez. Gero, herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan jarraituko da.

14. **Harreralekuan,** EITBra jotzen duten herritarrei euskaraz egingo zaie lehen hitza, «egun on» edo «arratsalde on» esanez. Gero, herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan jarraituko da.

15. **Ongietorria** euskaraz egingo zaie langile, bekadun, artista eta kolaboratzaile berriei. Ongietorriko eskuliburuan, EITBn laneko jarduerak eta lankideen arteko harremanak euskaraz egiteko nahia dugula jakinaraziko zaie, eta badaudela euskaraz lan egiten laguntzeko baliabideak.

16. **Terminologia** modu bateratuan erabili behar da EITB osoan, bai euskaraz, bai gaztelaniaz, EITBri buruz ari diren testuetan.

17. **Kontratu publikoetan,** xedearen araberako hizkuntza-betekizunak ezarriko dira berariazko klausulen bidez, alde batetik, herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten prestazioetan pertsonaren hizkuntza-hautua errespetatzen dela bermatzeko, eta, beste alde batetik, EITBren egoitzetan jardutea eskaten duten prestazioetan EITBko langilearen hizkuntza-hautua errespetatzen dela bermatzeko.

02 | Idazkera laua erabiltzeko gomendioak

02 | Idazkera laua erabiltzeko gomendioak

Idazkera laua erabiltzeak esan nahi du irakurlearekin komunikatzeko ahalegin bat egitea, testua lehen irakurraldian ulertzeko estiloa erabiltzea. Sasoi bateko testu ilun, astun eta hotzen aldean, egun, administrazioetan eta enpresetan, testu argiak, eraginkorrak eta hurbilak sortzea bultzatzen dute. EITBn ere, estilo lau hori gomendatzen dugu gure gutunak, txostenak, memoriak eta gainerako dokumentuak prestatzeko.

1. Testua planifikatu

Idazten hasi aurretik, une batez pentsatu zer esan nahi duzun, eta esan beharrekoa zelan antolatuko duzun.

2. Esaldi laburrak egin

Gehienez ere, 15-20 hitzeko esaldiak osatu. Idazkera monotono eta aspergarria ekiditeko, ez egin esaldi guztiak luzera berekoak, eta ez antolatu esaldi guztiak berdin.

3. Ideia bat esaldiko

Esaldi bakoitzean, ideia bakarra jartzea duzu egokiena. Idazkera monotono eta aspergarria ekiditeko, oso baliagarriak dira lokailuak eta juntagailuak.

Euskaraz

- ◯ eta, baina, ordea, beraz...

Gaztelaniaz

- ◯ o, por consiguiente, sin embargo...

4. Aditz aktiboak hobetsi

Aditz pasiboek esaldi astunagoak eta bihurriagoak eratzen dituzte. Askotan, esaldiok ilunagoak ere badira, ekintzaren egileak ezkutatu egiten dituztelako.

Euskaraz

- ✕ Administrazio Kontseiluaren atzoko batzarrean onartua da hauteskunde-informaziorako tarteen banaketa.
- ✕ Zuzendaritzaren aldetik jakinarazia da audientzia-datu hori.

Hobeto honela:

- ◯ Administrazio Kontseiluak atzoko batzarrean onartu zuen hauteskunde-informaziorako tarteen banaketa.
- ◯ Zuzendaritzak jakinarazi du audientzia-datu hori.

Gaztelaniaz

- ✕ Las cantidades mensuales resultantes serán abonadas por el Departamento de Contabilidad en un solo pago mensual, en el plazo de 90 días desde la finalización de cada mes facturado.
- ✕ Esa información ha sido desmentida por la Ertzaintza.

Hobeto honela:

- ◯ El Departamento de Contabilidad abonará las cantidades mensuales resultantes en un solo pago mensual, en el plazo de 90 días desde la finalización de cada mes facturado.
- ◯ La Ertzaintza ha desmentido esa información.

Aditz inpertsonalak saihestea ere lagungarria izango zaizu testu samurragoak eta gardenagoak osatzeko. Ekintzaren egilea nor den zehaztu nahi ez duzunean edo zehaztu ezin duzunean, 'haiek' inpertsonalera jo dezakezu euskaraz. Gaztelaniaz, berriz, oso erabilgarria da 'se' izenordaina.

Euskaraz

✗ Administrazio Kontseiluaren atzoko batzarrean onartua da hauteskunde-informaziorako tarteen banaketa.

✗ EITBren jarduerak kalitatezko informazioa zabaltzen duela ziurtatu behar da.

Hobeto honela:

○ Administrazio Kontseiluaren atzoko batzarrean onartu zuten hauteskunde-informaziorako tarteen banaketa.

○ EITBren jarduerak kalitatezko informazioa zabaltzen duela ziurtatu behar dugu.

Gaztelaniaz

✗ Habiendo recibido su reclamación del 28 de mayo, señalar que el plazo para la presentación de ofertas se prolonga hasta el 15 de abril.

✗ Como principio general, serán respetados el silencio o la negativa a responder a las preguntas de los periodistas.

Hobeto honela:

○ Se ha recibido su reclamación del 28 de mayo, y se le hace saber que el plazo para la presentación de ofertas se prolonga hasta el 15 de abril.

○ Como principio general, se respetará el silencio o la negativa a responder a las preguntas de los periodistas.

5. ‘Zu’ eta ‘gu’ erabili

Testuaren hartzaileari —generikoa izan arren— zu deitu beti, eta erakundeari, gu. Jarraibideak, jakinarazpenak eta gogoan hartzeko informazioak askoz ere ulergarriago egiten dira horrela.

Euskaraz

✕ Harremanetan jarri nahi duten bezeroek formulario hau bete behar dute.

Hobeto honela:

○ Gurekin harremanetan jarri nahi baduzu, bete ezazu formulario hau.

Gaztelaniaz

✕ Los visitantes apagarán los móviles antes de entrar en el estudio. Si lo prefieren, dispondrán de taquillas para guardarlos.

Hobeto honela:

○ Apaga el móvil antes de entrar en el estudio. Si lo prefieres, te facilitamos una taquilla para guardarlo.

6. Terminologia egokitu

Zerbait esateko daukazunean, esan horixe bera, modurik errazenean, hartzaileak uler ditzakeen hitzen eta egituren bitartez. Testu arruntetan, utz itzazu alde batera termino eta esamolde teknikoak.

Euskaraz

✗ Lankidea:
Ohar informatibo honen bidez jakinarazi nahi dizugu aplikazio berri bat inplementatu dugula EITBren Tortolikabarne-sarean, Zero Paper atalean, bisita eskabideen izapideak egiteko.

Hobeto honela:

○ Lankidea:

Aplikazio berri bat jarri dugu Tortolikan, Zero Paper atalean, bisita-eskabideak egiteko.

Gaztelaniaz

✗ El modelo español ha concentrado en la oferta de televisión un modelo propio de espectacularización y banalidad sustentado en su enorme capacidad de generación de ingresos publicitarios en régimen de duopolio.

Hobeto honela:

○ El modelo español de televisión se caracteriza por el espectáculo y la banalidad. Es un modelo que proporcionagrandes ingresos por publicidad a los dos principales grupos audiovisuales privados.

7. Jarraibideak oso lagungarriak dira

Hizkera puztua baino argigarriagoak dira agindu zuzenak eta jarraibide zehatzak.

Euskaraz

✕ Asko eskertuko genizuke, iradokizunik izango bazenu, email bidez helaraziko bazenizkigu.

Hobeto honela:

○ Bidali zure iradokizunak email bidez, mesedez.

Gaztelaniaz

✕ Una vez introducidos los datos en la aplicación, recuerde que seguidamente debe remitir el ticket de gastos a Tesorería.

Hobeto honela:

○ Introduce los datos en la aplicación, y después remite el ticket de gastos a Tesorería.

8. Nominalizazioak saihestu

Ekintzak aditzen bitartez adierazten dira. Izenen bidez adierazten badira, esaldia astunago bihurtzen da, eta, gainera, mezuaren muina lausotu egiten da.

Euskaraz

✕ Lehortearen aurrean, agintariek uraren zentzuzko erabilera egitea gomendatu dute.

Hobeto honela:

○ Lehortearen aurrean, agintariek ura zentzuz erabiltzea gomendatu dute.

Gaztelaniaz

✕ El nuevo programa de edición efectúa inserciones de audio con mayor rapidez, y es de mayor compatibilidad.

Hobeto honela:

○ El nuevo programa de edición inserta audio más rápido, y es más compatible.

Adibidean ikusten denez, gaztelaniaz, joera handia dago esaldiaren osagaiak izen bihurtzeko, direla aditzak, direla adberbioak, direla adjektiboak. Dena dela, gaztelaniaz, estilo arinago eta argiagokotzat jotzen dira izen abstraktuak, aditz pasiboak baino.

Gaztelaniaz

✕ Rechazó ser perdonado por su víctima.

Hobeto honela:

○ Rechazó el perdón de su víctima.

9. Korapiloak saihestu

Datu eta informazio ugari eman behar ditugunean, ez diogu beldurrik izan behar testua zatikatzeari. Testu jarraia, itxuraz paragrafo laburragoak eta trinkoagoak sortzen dituen arren, irakurlearentzat ez da lagungarria. Testu-antolatzaileek, ostera, informazioa antolatu, eta irakurlea erraz gidatzen dute testuan zehar.

Adierazpideak errepikatzea eta egitura paraleloak erabiltzea ere, oso teknika ona da erraz irakur daitezkeen testuak sortzeko.

Euskaraz

○ alde batetik / bestetik / horrez gainera
lehenengo / bigarrenez / hirugarrenik / ...
lehendabizi / horrekin batera / azkenik

Gaztelaniaz

○ por un lado / por otro lado / además de eso
primero / segundo / tercero / ...
en primer lugar / junto con eso / finalmente

Euskaraz

✕ Gure enpresak komunitatearen aurrean hartu dituen konpromisoak ingurugiroa zaintzea eta garapen iraunkorra dira,euskara sustatzea eta euskal kulturaren zabalkundea, eta pertsonen ongizatearekin lotuago, garapen profesionala, etafamilia eta lan-bizitza bateratzea.

Hobeto honela:

○ Gure enpresak hainbat konpromiso hartu ditu komunitatearen aurrean: batetik, natur inguruari dagokionez, inguru- giroa zaintzea eta garapen iraunkorra bultzatzea; bestetik, gure kultur ondareari dagokionez, euskara sustatzea eta euskal kultura zabaltzea, eta, horrez gainera, pertsonen ongizateari dagokionez, garapen profesionala eskaintzea, etafamilia eta lan-bizitza bateratzea.

Gaztelaniaz

✕ Ofrecemos servicio por la mañana, de cuatro a ocho, y los fines de semana hasta las seis.

Hobeto honela:

○ Ofrecemos servicio por la mañana, de 09:00 a 14:00; por la tarde, de 16:00 a 20:00, y los fines de semana, de 09:00 a 18:00.

10. Logikari leku egin

Zentzuz, badakigu informazio garrantzitsuak ez direla testuaren amaierarako utzi behar. Esate baterako, alferrik da formulario baten azpialdean honelako ohar bat jartzea: «Euskal Telebistako langileek ez dute NAN zenbakia jarri behar». Ohar horretara heltzerako, eskatzaileak, ETBko langilea izan zein izan ez, beteta dauka NANari dagokion eremua.

Zentzuz, badakigu erreferentziak aldatzea nahasgarria izan daitekeela. Esate baterako, hasierako aipamen guztietan «Euskal Telebistako langileak» esaten badugu, txarto ulertzeko edo zalantzan geratzeko bidea ematen du halako batean «pertsonala» esaten hasteak.

Oro har, egin jaramon zentzuak esaten dizunari.

03 | Batzarrak euskaraz egiteko gida

03 | Batzarrak euskaraz egiteko gida

Laneko batzarrak euskaraz egin daitezke parte-hartzaile guztiek euskararen ezagutza handia izan ez arren. Horretarako, gidariak jarraibide hauek hartu beharko lituzke aintzat.

1. Saioa hasi aurretik, komenigarria da modu formalean adostea zein hizkuntza erabili. Gidariak galdera hau egin dezake: «Badago eragozpenik batzarra euskaraz egin dezagun?» Partaide guztiak bat etorriz gero, euskaraz jarraituko da.

2. Batzar-deialdiarekin batera, gidariak gai-zerrenda bidali behar du, euskaraz. Euskararen ezagutza txikiagoa dutenei batzarreko gaiak euskaraz zelan diren ohartzeko eta ikasteko aukera ematen die horrela.

3. Aztertu beharreko dokumenturik badago, gidariak batzarra baino egun batzuk lehenago bidali behar ditu denak, parte-hartzaileek testuak aztertzeko denbora nahikoa izan dezaten.

4. Batzarraren hasieran, gidariak ondo azaldu behar ditu batzarraren eskema, helburuak eta dinamika.

5. Gai-zerrendako puntu bakoitza aztertu ondoren, gidariak erabakitakoa laburbildu behar du, eta parte-hartzaileei galdetu ondo ulertu duten dena. Laburbilpena arbel batean edo orri handi batean jasotzen badu, hobeto.

6. Euskararen ezagutza oso handia ez duten parte-hartzaileek nahi duten hizkuntza erabiltzeko aukera izango dute. Euskaraz egiten ez badute, gidariak hartu beharko du batzarra euskarara itzultzeko ardura, esate baterako, lehen hitza berak eginez, euskaraz, jakina.

7. Euskarri grafikoak (power pointak, kartelak, arbela...) oso lagungarriak dira batzarra antolatu eta gidatzeko, bai eta azaltzen diren ideiak jaso eta bistaratzeko ere.

8. Batzarraren akta egin behar duenak, euskararen ezagutza txikia badu ere, ez du zertan kezkatu. Badu euskarazko akta-eredua (ikus IV. eranskina). Baditu batzarraren aurretik banatutako gai-zerrenda eta dokumentazioa. Horrekin batera, lagungarri izango zaizkio batzarrean erabili diren grafikoak, eta saioan tarteka-tarteka gidariak eginiko laburbilpenak. Horren guztiaren ostean, pasarteren bat gaztelaniaz utzi behar badu, ez da arazoa.

04 | Hizkuntza baliabideak

04 | Hizkuntza baliabideak

Euskal Irrati Telebistan laneko jarduerak euskaraz egin nahi dituen pertsonak laguntza hauek guztiak ditu.

1. Euskal Irrati Telebistako Euskara Zerbitzua

EITBko Euskara Zerbitzuaren ardura, batik bat, emisioko euskararen kalitatea zaintzea da baina, horrez gainera, komunikazio-taldean erabiltzen den terminologia bateratzen laguntzen du, enpresaren egoitzetako hizkuntza-paisaian ipini beharreko formei buruz aholkatzen du, eta euskaraz lan egiteko eskura dauden estilo-liburu, hiztegi, gramatika eta gainerako hizkuntza-baliabideen gaineko orientazioa ematen die EITBko langileei.

2. Itzulpen zerbitzua

EITBk bere egituratik kanpoko itzulpen-enpresen zerbitzuak kontratatzen ditu publikoki zabaldu behar diren dokumentuetarako. Enpresa barruan erabiltzeko diren dokumentuen kasuan, egilearen ardura izango da beharrezko bertsioak prestatzen direla ziurtatzea. Horretarako, berak edo bere saileko pertsonalak baliabide lagungarriak aurki ditzake eranskin honetan.

Emisiorako testuak beste bide batetik kudeatzen dira.

3. Itzultzaile automatikoak

Interneteko itzultzaile automatikoak oso aukera ona dira testu bat gaztelaniatik euskarara ekartzeko, edo alderantziz, jatorrizko testua kalitate onekoa bada batik bat. Une honetan, frantsesean eta ingelesean aurrerapen handiak egiten ari dira. Gogoan izan behar da, edonola ere, emaitza berrikusi eta orraztu beharra egoten dela.

Aplikaziorik ezagunenetakoak helbide hauetan aurki ditzakegu:

http://batua.eus

http://www.euskadi.eus/itzuli/

4. Xuxen

Xuxen tresna informatiko bat da, prestatzen ari garen testuan ortografia egiaztatzen duena. Horregatik, zuzentzaile ortografikoa esaten zaio, eta komenigarria da aktibatuta edukitzea testu-prozesadorea erabiltzen dugunean.

Eskura ditugun testu-prozesadoreetan, Xuxen integratuta egoten da, eta ez dugu ezer egin behar. Edozelan ere, helbide honetan eskura dezakegu:

http://xuxen.eus

5. Euskalbar

Interneten, oso ugaria da euskarazko hiztegien eskaintza: elebidunak (euskara - gaztelania, euskara- frantsesa, euskara- ingelesa, eta beste konbinazio asko), sinonimoen hiztegiak, terminologia-bankuak, entziklopediak eta beste hainbat hiztegi-mota. Hiztegiok behar ditugunean, webgune batetik bestera ibil gaitezke, baina bada aukera errazago eta erosoago bat: Euskalbar.

Euskalbar nabigatzailean txertatzen den gehigarri bat da, Interneteko euskarazko hiztegi guzti-guztiak biltzen dituena. Firefox nabigatzailean instalatzen da, eta gehien interesatzen zaigun eran pertsonaliza dezakegu: gogoko hiztegiak, hizkuntza-konbinazio ohikoena, eta abar. Instalatzeko, helbide honetara jo behar da:
https://addons.mozilla.org/eu/firefox/addon/euskalbar/

Chrome nabigatzailerako, HiztegiBar deritzon bertsioa dago:
https://chrome.google.com/webstore/search/hiztegibar

6. HIKEA

HIKEA EITBn garatutako aplikazio bat da, osagai bi dituena: datu-base bat, eta datu-basea kontsultatzeko aplikazio bat. Datu-basean, EITBko lanetan behar diren hitzak eta terminoak gordetzen dira, bai albistegi eta programetan behar direnak, bai enpresako jarduera eta gestioetan behar direnak. Besteak beste, EITBko organigrama, irrati eta telebistako hiztegi teknikoa, eta musika deskribatzeko adjektibo-zerrenda kontsulta daitezke.

HIKEAren kontsulta-aplikazioa Tortolikan dago, Euskara Zerbitzuaren gunean. Interneten ere erabil daiteke, Euskalbarren bitartez zein eitb.eus atariko helbide honetan:
http://www.eitb.eus/eu/kultura/euskara/kontsultak/

7. Dokumentu-ereduak

EITBko lanetan, sarri aurkituko duzu lehendik prestaturiko dokumentuak. Oso baliagarri izango zaizkizu eredu edo txantiloi modura. Eskuliburu honetan, batzar-aktak prestatzeko eredu bat jaso dugu IV. eranskinean. Tortolikan, 'Inprimakiak' atalean, beste hainbat dauzkazu: lan-bonoa, faxa...

05 | Aktak: ereduak eta esamoldeak

05 | Aktak: ereduak eta esamoldeak

1. Lan-bileraren akta

Saila:
Akta zk.:

Deialdia

Data	
Hasiera-ordua	
Amaiera-ordua	
Tokia	
Dei-egilea	
Bildutakoak	
Huts egindakoak	

Gai zerrenda	
Banatutako dokumentuak	

Batzarra

Adostutako ekimenak / erabakiak	Arduraduna	Epea

2. Bilera-akta

Saila:
Akta zk.:

Deialdia

Data	
Hasiera-ordua	
Dei-egilea	

Tokia	
Amaiera ordua	

Bildutakoak	

Bertaratu ezina adierazi dutenak	

Gai zerrenda

Batzarra

Eztabaidak eta erabakiak

3. Aktetako esamoldeak

Ohiko egiturak

Euskaraz

- Bilbo, 2021eko maiatzaren 3a
- Iruñea, 2022ko urriaren 4a, asteartea
- 10:00etan, 10:15ean, 10:20an, 10:30ean
- 10:00etatik 11:40ra, 10:00-11:40

Gaztelaniaz

- Bilbao, 3 de mayo de 2021
- Pamplona, 4 de octubre de 2022, martes
- a las 10:00, a las 10:15, a las 10:20, a las 10:30
- de 10:00 a 11:40, 10:00-11:40

Esaldi eginak

Euskaraz

- Lehen / bigarren deialdian
- Aurreko akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.
- Lehendakariak proposamena bozketara jarri, eta onartu egin da / atzera bota da x eta y-ko boto-emaitzarekin / aho batez.
- Galdera-eskeak
- Hitz egiteko txanda irekia
- Parte-hartzeak amaituta, honako akordio hauek hartu dira:...
- Lehendakariak amaitutzat eman du saioa, eta nik, idazkari naizenez, akta hau egiten dut.

Gaztelaniaz

- En primera / segunda convocatoria
- Lectura y aprobación, si procede, del acta anterior.
- La presidencia somete la propuesta a votación, que resulta rechazada / aprobada por x votos a y / por unanimidad.
- Ruegos y preguntas
- Turno abierto de intervenciones
- Finalizadas las intervenciones, se adoptan los siguientes acuerdos:...
- La presidencia da por finalizada la sesión, de la cual, como secretario/a levanto acta.

06 | Email eta gutunetako esamoldeak

06 | Email eta gutunetako esamoldeak

Hasierako agurra

Euskaraz

Formalak

- Etxebarria andre agurgarria / Etxebarria jaun agurgarria:
- ARASKIko lehendakari agurgarria / Sailburu agurgarria / Euskaltzain-buru agurgarria / ...:

Neutroak

- Euskaltzaindiko jaun-andreak / ARASKIko adiskideak /...:
- Adiskideak:
- Adiskide Itziar / Adiskide Mikel:
- Etxebarria andrea / Etxebarria jauna:
- Hornitzailea / Radio Vitoriaren entzulea / ETBren ikuslea / ...:

Gaztelaniaz

Formalak

- Estimada señora Etxebarria / Estimado señor Etxebarria:
- Distinguida presidenta de ARASKI / Distinguida consejera / Distinguido presidente de Euskaltzaindia / ...:

Neutroak

- Señoras y señores de Euskaltzaindia / Amigas y amigos de ARASKI / ...:
- Estimados amigas/os:
- Estimada Itziar / Estimado Mikel:
- Señora Etxebarria / Señor Etxebarria:
- Estimada proveedora / Estimado oyente de Radio Vitoria / Estimado/aespectador/a de ETB / ...:

Ohiko egiturak

Euskaraz

- Honen bidez adierazten dizut...
- Mezu honi atxikita bidaltzen dizut...
- Ezer baino lehen, esan beharra dugu...
- 2021eko otsailaren 17an bidali zenigun gutuna dela eta,...
- Pozgarria zaigu jakitea...
- Gure atsekabea adierazten dugu... -gatik...

Gaztelaniaz

- Por medio de la presente le comunico que...
- Adjunto le remito...
- En primer lugar, queremos señalar que...
- En respuesta a su carta del 17 de febrero de 2021,...
- Nos complace saber que...
- Lamentamos que...

Esaldi eginak

Euskaraz

- Batzarrera / Aurkezpenera / Ekitaldira etortzekoa bazara, deitu 946 563 000 telefonora, edo bidali mezu bat info@eitb.eus helbidera.
- Gonbidapena pertsona bakarrarentzat / bi pertsonarentzat da.
- Barkatu arazo / atzerapen / ... honek eragindako eragozpenengatik.

Gaztelaniaz

- Si tiene intención de acudir a la reunión / a la presentación / al acto, llame al teléfono 946 563 000, o mande un mensaje a info@eitb.eus.
- La invitación es para una sola persona / solo para dos personas.
- Disculpe las molestias ocasionadas por este problema / retraso / ...

Amaierako agurra

Euskaraz

Mezua ixteko

- Ekitaldian gurekin bat egingo duzulakoan
- Zure berri laster izango dugulakoan
- Hala egiaztatzen dut, dagozkion ondorioetarako.
- Informazio gehiago behar izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezke, 946 563 000 telefonora deituz edo info@eitb.eus helbidera mezu bat bidaliz.
- Zure esanetara naukazu.

Formalak

- Adeitasunez / Begirunez
- Har ezazu gure / nire agurrik zintzoena

Neutroak

- Har ezazu nire / gure agurrik beroena
- Besarkada handi bat

Gaztelaniaz

Mezua ixteko

- Confiando en que contaremos con usted
- En espera de sus noticias
- Lo que certifico a los efectos oportunos.
- Para más información, puede contactar con nosotros llamando al teléfono 946 563 000, o mandando un mensaje a nuestra dirección electrónica, info@eitb.eus.
- Quedo a su disposición.

Formalak

- Atentamente / Respetuosamente
- Le saluda / Se despide atentamente

Neutroak

- Recibe mi / nuestro más cordial saludo
- Un abrazo

Izenpea

Euskaraz

Bidaltzailearen datuak

- Andoni Aldekoa
  EITBko zuzendari nagusia
- Erosketa Saila

Tokia eta Data

- Bilbo, 2021eko apirilaren 19a

Gaztelaniaz

Bidaltzailearen datuak

- Andoni Aldekoa
  Director general de EITB
- Departamento de Compras

Tokia eta Data

- Bilbao, 19 de abril de 2021

Oharrak

Euskaraz

- Email hau inprimatu baino lehen, egiaztatu beharrezkoa dela.
- Erne! Baliteke mezu honen zatiren bat edo mezu osoa legez babestuta egotea. Mezuak badu bere hartzailea. Okerreko helbidera iritsi bada, ipin ezazu igorlea jakinaren gainean. Mezua zuretzat ez bada, ez erabili, ez zabaldu beste inori, ez kopiatu, eta ez baliatu.

Gaztelaniaz

- Antes de imprimir este email, compruebe la necesidad de hacerlo.
- ¡Atención! Este mensaje contiene información privilegiada o confidencial a la que solo tiene derecho a acceder el destinatario. Si usted lo recibe por error le agradeceríamos que no hiciera uso de ella, y que se pusiese en contacto con el remitente.

07 | EITBko terminologia

07 | EITBko terminologia

1. Ikus-entzunezko sektorea

Eskema nagusia:

Euskarriak

- CDa
- DVDa
- papera
- diskoa
- kasetea
- pendrivea
- bideo-kasetea
- ...

Euskarriak

- mugikorra
- tableta
- ordenagailua
- telebista-aparatua
- irrati-aparatua
- ...

Hedabideak

- irratia
- telebista
- prentsa
- zinema
- Internet
- sare sozialak
- ...

Hedabideak

- Youtube
- Netflix
- Prime
- HBO
- Euskaltel
- ...

Kanalak

- ETB1
- ETB2
- ETB3
- ETB4
- EITB Basque
- Euskadi Irratia
- Radio Euskadi
- Radio Vitoria
- Gaztea
- EITB Musika
- Euskal Kantak
- eitb.eus
- Gaztea appa
- Hiru appa
- youtube.com/eitbeus
- instagram.com/eitb
- ...

Definizioak:

euskarri (*soporte*): Informazioa gordeta edukitzeko elementu fisikoa.

gailu (*dispositivo*): Euskarrietan informazioa grabatzeko, prozesatzeko eta irakurtzeko balio duen aparatua.

hedabide (*medio*): Komunikazio prozesua gauzatzea ahalbidetzen duten sistema teknologikoetako bakoitza.

plataforma (*plataforma*): Zerbitzu baten ekoizlea edo hornitzailea eta zerbitzu horren kontsumitzailea harremanetan jartzen dituen azpiegitura digitala.

kanal (*canal*): Komunikazio-enpresa batek hedabide jakin batean edo plataforma jakin batean egiten duen eskaintza bakoitza.

kate (*cadena*): ikus-entzunezko edukiak banatzeko sarea, zentral batek eta zenbait estaziok eratua. Telebistakoa izan daiteke (NBC, CBS, Rede Globo...), edo irratikoa (COPE, SER, Fox News Radio...).

Adibideak, sinonimoak eta abar:

irrati-kanal	Radio Vitoria Arabako **estazio** dekanoa da.
canal de radio	Radio Vitoria es la **emisora** decana de Álava.
hedabide	Euskarazko **mediak** oso indarturik atera dira EGMren azken ikerketan.
kanal vs kate	1986an, *Twilight Zone* erosi genion CBS **kateari,** euskarara bikoiztu eta ETB1 **kanalean** emateko.
canal vs cadena	Radio Popular de Bilbao, pese a ser un **canal** perteneciente al Obispado de Bilbao, no forma parte de la **cadena** COPE.

2. Ikus-entzunezkoen kontsumoa

Kontsumo-aukerak:

lineala (*lineal*): ordu jakinetan programa jakinak eskaintzen dituen kanal bat hautatzea.

ez-lineala (*no lineal*): nahi den unean nahi den programa hautatzea harpidetza bidez, nahierako zerbituz baten bidez, podcast bidez, edo plataforma baten bidez.

Kontsumitzaileak:

ikusle (*espectador/a o televidente*): Telebistakoa.

entzule (*oyente*): Irratikoa.

erabiltzaile bakar (*usuario/a único/a*): Internetekoa.

Kontsumoaren neurketa:

audientzia (*audiencia*): Kanal batek duen kontsumitzaile-kopurua.

audientzia-kuota edo share (*cuota de pantalla o share*): Une jakin batean telebista ikusten ari diren pertsona guztien artetik ehuneko zenbat ikusten ari diren programa jakin bat.

batez besteko audientzia edo rating (*audiencia media o rating*): Une jakin batean zenbat pertsona ari diren programa jakin bat ikusten biztanleria osoaren ehuneko gisa adierazita.

ikuskapen-audientzia geroratu (*audiencia diferida de visionado*): Egun jakin batean audientzia geroratua (ez-lineala) zenbatekoa den adierazten duen datua.

programa-audientzia geroratu (*audiencia diferida de programa*): Programa jakin batek emisiotik zazpi eguneko epearen barruan zenbateko audientzia geroratua (ez-lineala) metatzen duen adierazten duen datua.

3. Emanaldiak

zuzenekoa (*directo*): Emanaldiaren denbora eta gertakariaren denbora bat datoz.

geroratua (*en diferido*): Gertakaria grabatu, eta emanaldia handik denbora batera izaten da.

berremanaldia (*redifusión*): Lehen emisiotik denbora batera errepikatzen den emanaldia.

4. Programen sailkapena

denentzat | para todos los públicos

bereziki haurrentzat | especialmente recomendado para la infancia

zazpi urte edo gehiagokoentzat | para mayores de siete años

hamabi urte edo gehiagokoentzat | para mayores de doce años

hamasei urte edo gehiagokoentzat | para mayores de dieciséis años

hamazortzi urte edo gehiagokoentzat | para mayores de dieciocho años

08 | EITBko organigrama nagusia

08 | EITBko organigrama nagusia

08 | EITBko organigrama nagusia

Zuzendari nagusia
Director/a general

Estrategia eta Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
Director/a de Estrategia y Comunicación Corporativa

Estrategia eta Ikerketako zuzendaria
Director/a de Estrategia e Investigación

Zuzendari kudeatzailea
Director/a gerente

Giza Baliabideen zuzendaria — ***Giza Baliabideen zuzendariordea***
Director/a de Recursos Humanos — *Subdirector/a de Recursos Humanos*

Sistema zuzendaria
Director/a de Sistemas

Ekonomia eta Finantza zuzendaria
Director/a de Economía y Finanzas

Aholkularitza Juridikoaren zuzendaria
Director/a de la Asesoría Jurídica

EITB Mediako zuzendaria (1/2)
Director/a de EITB Media

Albistegi zuzendaria — ***ETBko Albistegi zuzendaria***
Director/a de Informativos — *Director/a de Informativos de ETB*

Kirol zuzendaria — ***Kirol zuzendariordea***
Director/a de Deportes — *Subdirector/a de Deportes*

Albistegi eta Kirol-saioen Operazio eta Produkz. zuz — ***Plangintza zuzord.***
Dir. de Operac. y Prod. de Informativos y Deportes — *Subdir. de Planificación*

Arlo Komertzialeko zuzendaria — ***Publizitate burua***
Director/a del Área Comercial — *Jefe/a de Publicidad*

Miramoneko eta Proiektuen zuz. — ***EITBLaben burua***
Director/a de Miramon y Proyectos — *Jefe/a de EITBLab*

EITB Mediako zuzendaria (2/2)

Director/a de EITB Media

ETBko zuzendaria

Director/a de ETB

Programazio zuzendaria

Director/a de Programación

Programa eta Arte zuzendaria

Director/a Artístico y de Programas

Programen Produkzioko zuzendaria

Director/a de Producción de Programas

Esplotazio eta Ingeniaritza eta Esplotazio zuzendaria

Director/a de Explotación e Ingenieria y de Net

Esplotazio zuzendariordea

Subdirector/a de Explotación

Ingeniaritza zuzendariordea

Subdirector/a de Ingenieria

Audio eta Digitaleko zuz.

Director/a de Audio y Digital

Euskadi Irratiko zuzendaria

Director/a de Euskadi Irratia

Radio Euskadiko zuzendaria

Director/a de Radio Euskadi

Radio Vitoriako zuzendaria

Director/a de Radio Vitoria

Gazteako zuzendaria

Director/a de Gaztea

09| EITBren barruko prozedurak arloz arlo

09 | EITBren barruko prozedurak arloz arlo

Eranskin honetan, EITBko lan-prozeduretan sortzen diren produktu edo piezak jaso eta deskribatu ditugu eta, horrekin batera, pieza bakoitza zein hizkuntzatan zabaldu behar den zehaztu dugu. Hizkuntzaren argibidea emateko, termino hauek erabili ditugu:

- Euskara: bertsio bakarra, euskaraz
- Gaztelania: bertsio bakarra, gaztelaniaz
- Biak: bertsio bi, hizkuntza banatan
- Elebiduna: elementu bakarra, euskarazko bertsioa eta gaztelaniazkoa tartekatzen dituena.

Komunikazioa (I)

Pieza	Ezaugarriak	Argitarako hizkuntza
Gutun instituzionala	• EITBk erakunde, enpresa eta elkarteekin dituen harremanen agerpen idatzia. • Euskaratu behar denean, kanpoko itzulpen-zerbitzu batera bidaltzen da, edo Euskara Zerbitzura, isilpekotasuna behar denean.	**Biak** edo, harremana euskaraz egiten dutenen erakundeen kasuan, **euskara**
Prentsa-oharra	• Egunkarietara bidaltzen den informazioa. • Prentsa Zerbitzuak prestatzen ditu euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak.	**Biak**
EITBren oharra	• EITBren barruan eta EITBtik kanpo zabaltzen da. • Bertsio bien kudeaketa Prentsa Zerbitzuak edo Komunikazio Sailak egiten dute.	**Biak**
Tortolikako albistea	• EITBren barruan zabaltzen da, langileei Zuzendaritzaren erabakiak eta enpresan izaten diren jazoerak jakinarazteko. • Bertsio bien kudeaketa Prentsa Zerbitzuak edo Komunikazio Sailak egiten dute.	**Biak**
Prentsaurrekoa	• Promozio Sailak eta Prentsa Zerbitzuak kudeatzen dituzte, eta haien ardura da eledunen hizkuntza-ezagutza ziurtatzea.	**Biak**

Komunikazioa (II)

Pieza	Ezaugarriak	Argitarako hizkuntza
Ingurune digitala	• EITBren webguneak, sare sozialak eta appak ez dira erakundearen irudiarekin loturiko elementuak, baizik EITBk bere eginkizuna betetzeko erabiltzen dituen hedabideak, telebista eta irratia bezala. • EITBren webgune bakoitzak, sare sozialetako kontu bakoitzak eta app bakoitzak bere hizkuntza-profila du.	**Euskara, gaztelania, edo biak** kanalaren arabera.
Jendaurre-ko ekitaldia	• EITBren jendaurreko ekitaldiak ez dira erakundearen irudiarekin loturiko elementuak, baizik EITBren informazio, dibulgazio eta entretenimendu eskaintzaren parte. • Jendaurreko ekitaldi bakoitza, programa bat balitz bezala, hizkuntza-profil jakin batekin diseinatzen da.	**Euskara, gaztelania, edo biak** xede-hartzaileen arabera.

Promozioa

Pieza	Ezaugarriak	Argitarako hizkuntza
Kanpaina korporatiboa	• Promozioaren xedea EITB Talde osoa da, edo EITB Taldeak aurrera eraman beharreko ekimen bat (EITB Maratoia...). • Agentzia batek egiten du, Promozio Sailak zehaztutako lerroei jarraituta. • Gaztelaniaz sortu eta euskarazko bertsioa itzulpena denean, hauek dira ekidin beharreko arazoak: 1. Euskarara egokitzeko zailtasunak ager ditzakeen eslogana asmatzea. 2. Euskarapena itzultzaile ez oso fidagarrien esku uztea.	Euskarazko hedabideetan: **euskara** Gaztelaniazko hedabideetan: **euskara** edo **elebiduna**
Promozio kanpaina	• Promozioaren xedea EITBren hedabide bat edo hasteko den programa bat izan daiteke. • Agentzia batek egiten du Promozio Sailak zehaztutako lerroei jarraituta. • Normalean, Promozio Sailak eslogan, leit motiv edo ideia oso zehatza helarazten dio agentziari, euskaraz edo gaztelaniaz asmatua hedabidearen edo programaren hizkuntzan.	Euskarazko saioen edo kanalen kasuan: **euskara** (edozein hedabidetan) Gaztelaniazko saio edo kanalen kasuan: **gaztelania** (gaztelaniazko hedabideetan baino ez)
Autopromozioa	• Promozioaren xedea airean den programa bat sustatzea da, emisio eguna edo ordua gogoratuz, argumentuaren korapiloak azpimarratuz... • Estudio batek egiten du Promozio Sailak zehaztutako lerroei jarraituta. • Testuen formulak eta esapideak nahiko finkatuta egon arren, ez dira egoten hizkuntza-arazoetatik guztiz libre.	Euskarazko saioen kasuan: **euskara** (edozein hedabidetan) Gaztelaniazko saioen kasuan: **gaztelania** (gaztelaniazko hedabideetan baino ez)

Paper-gauzak

Pieza	Ezaugarriak	Argitarako hizkuntza
Argitalpenak	• EITBk prestatzen dituen txostenak, memoriak, planak... • Nagusiki, gaztelaniaz prestatzen dira, eta euskarazko bertsioa itzulpena izaten da. • Oso publiko espezifikoari zuzendutako argitalpenen kasuan ez da egoten euskarazko bertsiorik.	**Euskara, gaztelania** edo **biak**
Karteleria	• Ekitaldi publikoetan ezartzen diren kartelak, zutoinak, seina-leak, power point-ak... • EITB barruan sortzen dira.	**Euskara** edo **biak**
Inprimakia	• Bisitariei EITBren berri emateko liburuxkak, esku-orriak... • EITB barruan sortzen dira.	**Euskara** edo **biak,** aurpegi banatan

Aktak eta dosierrak

Pieza	Ezaugarriak	Argitarako hizkuntza
Zuzendaritza batzarraren akta	• Batzarreko idazkariak prestatzen du, eta berak kudeatze ditu bertsioak.	**Euskara** edo **biak**
Legebiltzarreko galdera	• Legebiltzarkide gehienek gaztelaniaz egiten dute galdera; bakarren batek, euskaraz. • Euskarapena behar denean, kanpoko itzulpen-zerbitzu batera bidaltzen da. • Isilpekotasuna behar duten itzulpenak Euskara Zerbitzura bidaltzen dira.	**Euskara** edo **biak**
Administrazio Kontseiluaren akta	• Administrazio Kontseiluaren idazkariak prestatzen ditu bertsio biak	**Biak**
Administrazio Kontseiluaren deialdia	• Administrazio Kontseiluaren idazkariak prestatzen ditu bertsio biak	**Biak**
Txostena	• Jaurlaritzaren edo/eta Administrazio Kontseiluaren parte-hartzea ere baduten dokumentuak: plan estrategikoa... • Euskarapena behar denean, kanpoko itzulpen-zerbitzu batera bidaltzen da.	**Biak**
Batzarraren akta	• Sail bakoitzean sortzen da dokumentua, dagozkion bertsioetan.	**Euskara** edo **biak**

Sistemak

Pieza	Ezaugarriak	Argitarako hizkuntza
Aplikazio propioa	• EITBren barruan sortzen da, EITBn erabiltzeko. • Interfazea euskaraz prestatzen da.	**Euskara**
Aplikazio jabeduna	• EITBk hornitzaile baten bidez eskuratzen du. • Interfazea bertsio komertzialak dakarren hizkuntzan jartzen da. Aukeretako bat euskara denean, euskaraz jartzen da. • Eskuliburua, eskematikoki bada ere, euskaraz ere eskaintzeko ardura dute Sistema Zuzendaritzak, Esplotazio Zuzendaritzak eta Euskara Zerbitzuak.	**Biak**

JELP

Jardun elebiduneko liburuxka praktikoa

EITBren laneko hizkuntza-irizpideak

© EITB, 2022

EITB Media

Basurtuko Kaputxinoen kalea, 2
48013 Bilbao
T. (+34) 946 563 000
info@eitb.eus

www.eitb.eus